

# URRETXU 2017

## EUSKAL JAIA Irailak 17



KARROZEN IBILALDIA



**Azpeitiko "Itsasi" Zanpantzar taldea  
Tolosako dultzaineroak eta Urretxuko "Iratzarri" dultzaineroak  
Donapaleu, Legazpi eta Urretxuko erraldoiak  
Urretxuko "Lizarriturri" Txistulari taldea**

**1 | NEE** kuadrillaren karroza

**SORMENA GATIBU**

Baldintzak egokiak badira, ideia-aleak ernatuko zaizkigu. Gero, ideia horiekin, kateak egindo ditugu eta irudimenez isuriko. Orduan, hodi mehe bat harituko dugu obulu bateraino eta eskuak, usaimena, ukimena, entzumena ahaztuko ditugu, paperezko loreak, zientzia, margo lanak, doinuak, olerkiak, bideo-jokoak, matematikak eta irudiak sortzeko.

SORMENA GARATUKO DUGU,

HORTAZ HEZKUNTZA EREDU IRUDIMENTSU BAT ESKATZEN DUGU!

---

*Si las condiciones son adecuadas, brotarán las ideas. Después, con esas ideas formaremos cadenas que fluirán con imaginación. Entonces, hilaremos un tubo fino hasta un óvalo, y olvidaremos las manos, el olfato, el tacto, el oído, para crear flores de papel, ciencia, trabajos pictóricos, sonidos, poesías, video-juegos, matemáticas e imágenes.*

*DESARROLLAREMOS LA CREATIVIDAD, POR TANTO,  
PEDIMOS UN MODELO DE EDUCACION IMAGINATIVO*

**"Lurra" Dantza Taldea**

**2 | GUZTIOK BAT** kuadrillaren karroza

**... ETA BIHAR BELDURRIK GABE ESNATUKO BAGINA?**

Beldurra, arriskutatz jotzen den berehalako estimulu edo egoera batean sentitzen den emozio bizia da.

Gizarteko presio eta etorkizuneko ezjakintasunek askotan egoera honetan murgiltzera eramatzen gaitu, izu eta antsietatea sentiaraziz.

Marik, euskal mitologiako jainkosa nagusiak, ama luraren irudi denak, gure etsaien aurrean babesteko beharrezko elementu guztiak sortu zizkigun.

Ilargia, gauez babesteko.

Eguzkia, egunez babesteko.

Eguzkilorea, edozein etsairi aurre egin ahal izateko.

Azken hau, etxeko atarietan jartzen hasi zen, babes ikur gisa.

Eta hala izan zen, beldurrei aurre egin gabe bizitzen ikasi genuen eta ohiturak darrai, konturatu gabe, nahi dugun guztia beldurretik haratago dagoela.

---

*El miedo es una emoción viva que se siente de inmediato ante un estímulo o situación de peligro.*

*La presión de la sociedad y el desconocimiento del futuro nos lleva a menudo a esa situación, haciéndonos sentir pánico y ansiedad.*

*Mari, diosa mayor de la mitología vasca, imagen de la tierra madre, nos creó todos los elementos necesarios para protegernos de nuestros enemigos.*

*La luna, para protegernos durante la noche.*

*El sol, para protegernos durante el día.*

*La flor del sol, para poder hacer frente a cualquier enemigo.*

*Esta última empezó a colocarse en el portal de casa, como signo de protección.*

*Y así fue, aprendimos a vivir sin hacer frente al miedo y la costumbre continúa, sin darnos cuenta que todo lo que queremos está más allá del miedo.*

## Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa

00RP kuadrillaren karroza | 3

### **GAUR URTZEN ARI DIREN TANTAK GURE MALKO BIHURTUKO DIRA**

Ama lurrik, kontuan hartu beharreko gauza harrigarriak eskaintzen dizkigu, hala nola: ekaitz luze baten osteko eguzki-printzak, itsas ertzetik osteratxo bat egiten ari garenean ikusten den ilunabar ederra, loreak, txorien kantak, animalienganganako ezinbesteko maitasuna, haizea, euria, hodeiak, lurra... dena. Dena da guri eskainitako oparia, kontuan hartu beharrekoa, eta zaindu behar du-guna.

Ekosistema suntsitzen ari gara, gurea soilik den ekosistema, eta ez da animalia zentzugabeagorrik bizia ematen diona suntsitzeko gai dena baino. Gu bakarrik. Dena den, gure lurrik behin eta berriz eskaintzen digu hain berea den edertasuna.

Jendeak ez du ulertzen planetak gorputzak bezala jokatzen duela:

gaixotzen zarenean, gorputzak gaitzaren aurka jarduten du bizirauteko asmoz, lehian berezko zenbait mikroorganismo hiltzen diren axola gabe. Berotegi efektuak itsasoetako ur maila igotzea eragiten du, lurrik urperatuz. Hau da, bera garaile izateko asmoz. Gainera, ez ditu kontuan hartzen zenbat animalia hil daitezkeen prozesuan.

Hala eta guztiz ere, bizirauteko ezinbestekoak zaizkigun baldintzak ematen dizkigu. Baino oparia zaigun hau guztia noizbait amaituko da eta orduan, zer egingo dugu? Asko dugu hausnartzeko eta benetan balio duenari garrantzia emateko.

*La madre naturaleza nos brinda cosas maravillosas que debemos apreciar, cosas como los rayos de sol después de una larga tormenta, un bonito atardecer mientras paseamos por la orilla de la playa, las flores, el canto de los pájaros, el amor incondicional de los animales, el viento, la lluvia, las nubes, la tierra... todo. Todo es un regalo que nos es dado y que debemos valorar y sobre todo cuidar.*

*Estamos destruyendo el ecosistema, nuestro propio ecosistema, y ningún animal fue tan insensato como para destruir lo que le da la vida. Solo nosotros. Y aún así, la tierra nos sigue regalando su increíble belleza.*

*La gente no entiende que el planeta actúa como nuestro cuerpo: cuando enfermas, tu cuerpo lucha contra ese virus con tal de sobrevivir, sin importarle cuántos microorganismos propios mueran en la batalla. El calentamiento global hace que suban las mareas y la tierra se inunde. Así que, con tal de salvarse ella, tampoco tiene en cuenta cuántos animales podemos morir en el proceso.*

*Y aún así, nos da las condiciones perfectas para seguir sobreviviendo. Pero todo esto acabará. Todo este regalo que estamos destruyendo llegará a su fin y entonces, ¿qué haremos? Hay mucho en lo que pensar y mucho que valorar.*

## Dance and song group "Kyczera" (POLONIA)

### 4 | **BATEK DAKI** kuadrillaren karroza

#### IRAGANA OROITUZ ETORKIZUNA ERAIKI

Duela 80 urte. Apirilaren 26a. Historian egun garrantzitsu bat.

Gernikako bombardaketa gogorarazteria gatoz. Azoka egun arrunt bat izan behar zena, inork desira ez zuen amesgaizto bilakatu zen gerra zibilaren erruz.

Ikara nagusitu zen sirena entzun orduko gernikarren artean eta herritar guztiek alde egin aurre-tik jazo zen ezbeharra, dena suntsitutik utziz, gaurko protagonista izan ezik, Gernikako Arbola. Orduz gerotzik zutik dirauen bakarra eta garai hartan Euskal Herriak izan zuen sendotasunaren adierazlea.

Picassok ere horixe islatu nahi izan zuen bere margoan eta baita guk karroza honetan ere. Orain arte bezala jarrai dezala bere fruitua eman eta zabaltzen!

---

Hace 80 años. 26 de abril. Día importante en la Historia.

Recordamos el bombardeo de Gernika. Lo que debía haber sido un día normal de mercado, se convirtió en una pesadilla que nadie deseaba, por culpa de la guerra civil.

Nada más escucharse la sirena, cundió el pánico entre la población de Gernika, y ocurrió la tragedia antes de que la gente abandonara el pueblo; todo quedó destrozado, salvo el protagonista de hoy, el Árbol de Gernika. Lo único que permanece en pie desde entonces, señal de la firmeza de Euskal Herria en aquel tiempo.

Así lo quiso plasmar Picasso en su cuadro, y también nosotras en nuestra carroza.

Como hasta ahora, ¡sigue dando y expandiendo su fruto!.

## Urretxuko Trikitilariaik

**EUSKAL HERRIA  
LAUBURUA**

Lauburua. Izenak adierazten duen bezala, lau buru biribil dituen gurutze itxurako ikurra. "Lau" buru, hainbat aburu bai, baina guretzat gurea, gure herria, bihotzean daramaguna. "Lau" aniztasunaren ikur; gure kultur, kirol, ingurumen zein gastronomiaren aberastasunaren ikur. Eta erdian, EUSKARA; "eus-kaldun egiten gaituena". Egin diogu, euskaldun jaio baino egin egiten delako, eta oraindik ere egiten jarraitu behar dugulako. Lan horretan ezinbestekoa izan da urteetan izan dugun hizkuntza eta kultura transmisioa. Horren erakusgarri "Xabiertxo", Ikastolen lehendabiziko urteetan erabili zen euskarazko lehen testuliburueta bat. Izan ziren, direnen, garenaren eta izango direnen harrotasunaren ikur gure aurtengo karroza. Ez dadila haria eten. Gora Euskal Herria!

**Antxinako Ama Txistulari Taldea (Zumarraga)****"KONTUZ! KANTUZ GATOZ"**

Lurruntzen diren artean belarria jarrita dauden dutxako manpara haeiek badakite gaur ere bertoza-zaharen batzuk entzun ahal izango dituztela agian. Lehortzen manparak baino zailagoak diren masaila heze horiei, bestalde, auskalo *Anarik* gogoratu ote dien aukeratua zirudien etengabeko noraez batean daudela, edo *Berri Txarrakek* aspaldi dela iparra galdu eta hegora joan zirenetik.

Oraindik mahaiaren gainean dirauei pitxar horri baziak zera etorri den gazte kuadrilak argitu dio sobera hartzan ari diren kafea dela denetan onena; baziak zoriontsua, alegia. Baino agian, jendez gainezka zeuden eserleku haeiek izango ziren gehien gozatu dutenak, hankak dardarka, eskuak poltsikoetan eta amildegia ilun baten ertzean den gazte batek kostata kantatu dituen erdipurdiko bertsoak entzunez.

Antzeratsu ibili da musikariz josita zen plaza hartako oholtza txikia, parean lau laguneko kuadrila bat izerdi patsetan ikusi duenean. Hauek, ahotsa galdu beharrean, argi utzi diote arratsalde honetan nahikoa direla beraiek.

Txosna hartako barrari irri txiki bat atera zaio elkar ezagutzen ez zuten bi gazte horiek oihu batean mundua elkarren ohetik ikusi nahi zutela kantatzen entzun dituenean, biak batera elizaren atzen elkar arakatzen bukatu aurretik. Bai, taberna hartako pertxeroa ere barrez entzun dute, hiru gazte ados jarri ezinda ikusi dituenean. Sexukada, ze sugarra, sexua da... zer kristo esaten ote zuen kantatzen ari ziren *Kuraiaren* abesti horrek?

Eta igande euritsu batean, *Ruperren* ahotsa izan zen lagun batetik hainbeste urrundu izanaren kulpa kentzen saiatu zena beste hari, ezetz esanez; ez naizela ni zurekin ahaztu dena. Eta, badeazpada, inoiz gaizki ez datorren aholkua eman zion betiko lau akorde malapartatuen laguntzaz: zaintzeko maite duzun hori.

Agian gauza asko aldatuko ziren arren, lehen eguneko indar berberarekin jarraitzen dute doinu alai nahiz tristeek euskaldunon ahotan, berdin Zaraitzuko ibarrean, Ibarra edo Eibarren. Pirineoen bi aldeetara kantuan gabiltzan herria gara, kantuz jaio dena eta kantuz bizi nahi duena. Ferminek sarri gogoratzan digun moduan: **kantatzen duen herria ez da inoiz hilko**.

Urretxu kantu bat da, lau haizetara entzuten den kantu bat. Badator **JOSETO TA ALAIAK elektrotxaranga** *Eyak Jodiu* kuadrilakoen karrozarekin. Zeren zain zaudete? Ekin kantatzeari!

## 7 | KALERA kuadrillaren karroza

### KALERA! BAKEA ETA ASKATASUNA IRABAZTERA!

Badira 7 urte ETA-ren jardun armatua amaitu zela eta 5 hilabete aldebakarrez Euskal Jendartea-ren lanari esker armak indargabe utzi zituztela. Baino, benetako Bakean bizitzetik urrun gaude oraindik. Espainiar eta frantziar estatuen estrategia errepresiboa bere baitan jarraitzen du eta Gure Herriaren Eskubide Politikoak aitortzetik urrun.

Gaur egun 319 preso politiko daude kartzeletan bahituta, horietatik 21 gaixo larriak. 2 Euskal Herriko espeluetan daude, 253 espainiar estatuko 42 espeluetan sakabanatuak eta 71 frantziar estatuko 21 espeluetan. Gehienak beraien jaioterritik 500 km baino gehiagotara urrunduak daude.

Dispersioak preso politikoaren senide eta lagunengan daukan eragina ezin dugu ahaztu. Sufri-mendua, kilometroak, dirutzak, arriskuak. Aurten zazpi kotxe istripu pairatu dituzte jada aurten dispersio politikagatik. Noiz arte zehazki? Bada garaia kartzela politika hiltzaile honekin behin betikoz amaitzea. Estatuen mendekuaren eta espelue politikaren krueltasunaren adierazle bat Kepa del Hoyo-ren heriotza da.

Jakin, badakigu, espainiar eta frantziar estatuek ez dutela euren borondatez aurrera pausorik emango. Horregatik Euskal Jendartea egin behar du benetako bakerantz eramango gaituen bidea, Konpromesuz eta Elkartsunez.

---

*Han pasado 7 años desde que ETA dio por finalizada la lucha armada y 5 meses desde que, gracias al trabajo realizado por la ciudadanía vasca, entregara las armas. Pero todavía estamos lejos de vivir en paz. La estrategia represiva de los estados español y francés sigue activa y aun no se han reconocido los derechos políticos de nuestro pueblo.*

*Hoy en día hay 319 presos y presas políticas, 21 sufren graves enfermedades. 2 están en cárceles de Euskal Herria, 253 dispersadas en 42 cárceles del estado español y 71 en 21 cárceles del estado francés. La mayoría está alejadas de su entorno a más de 500 km.*

*No podemos olvidar el efecto que causa la dispersión en familiares y amigas de las presas políticas. Sufrimiento, kilómetros, dinero, peligros. Este año 7 familiares han sufrido accidentes de tráfico al ir o al volver de las visitas. Hasta cuando? Kepa del Hoyo murió en la cárcel, alejado de su familia y amigos. Un ejemplo claro de la残酷 de esta política de dispersión.*

*Tenemos muy claro que ni el estado español ni el francés van a dar pasos hacia la resolución por si mismos. Que somos la ciudadanía vasca quienes tenemos que dar pasos hacia adelante, pasos comprometidos y solidarios para construir una paz real.*

**Etxean nahi ditugulako, Euskal Preso Politikoak Kalera!!  
Maite zaituztegu!**

**Larraiza Dantza Taldea (Lizarra)**

## GURE SUSTRAIAK ALDARRIKATUZ

Euskal mitologia euskaldunon sustrai sendo eta aberatsenetako bat dugu, berean besteengandik bereizten gaituen atal garrantzitsu bat.

Askotan ikusten ditugu mitologiak utzi dituen arrastoak, ezezagun bihurtzen ari direnak; adibidez Eguzkilorea.

Eguzkilorea euskal gizartean garrantzi handia izan duen elementu mitologikoa da.

Euskaldunon arbasoek elementu hau baserrietako ateetan jartzen zuten gauean lamiak eta sor-ginak uxatzeko.

Lamiak eta sorginak etxeetara sartu nahi izaten zuten umeak eramateko. Hau lortzeko, eguzki-loreak zituen arantzak zenbatu behar zitzuten, baina hau lortu orduko eguna argitu eta gaueko izaki maltzurrak ezkutatzera joan behar izaten ziren.

*Estamos en el año 2015. El neoliberalismo, promovido por la gula del dólar y sin escrúpulos en sus venas, Elementos importantes de nuestra mitología, como “Eguzkilore”, va en camino de resultarnos desconocido.*

*Los antepasados de los vascos, utilizaban este elemento en las puertas de sus caseríos para ahuyentar los seres malignos de la noche.*

*Algunos de ellos, tales como brujas y lamias, querían entrar en los caseríos para secuestrar a los bebés. Par lograr sus hazañas, debían contar los pinchos del “Eguzkilore”; debido a que eran tantos y estos seres no contaban bien, amanecía y por lo tanto, tenían que huir de la luz.*

## Secundino Esnaola Musika Eskolako Trikitilariak

## ETORKIZUNARI BEGIRA

Mendeetan zehar elizak pisu handia izan du gure gizartean, gaur egungo kulturaren oinarriak berak finkatu baititu. Indar handia lortu zuen eta gure pentsamenduan eta ikuspuntuan eragina izan du. Hala ere, urteek aurrera egin ahala, zientziak eta teknologiak ere aurrera egin dute, eta aldaketa asko ekarri ditu; gizartean aurrera pauso handiak eman dira eta generazio berrieik antzinako pentsamendua alde batera utzi nahi dituzte, gizarte aske eta aurreratu bat bihur dadin.

*Durante siglos la Iglesia ha sido un pilar fundamental en nuestra sociedad, siendo la base sobre la que construimos los cimientos de nuestra cultura. Influenció la forma en la que vivíamos y veíamos el mundo. Desde sus principios se convirtió en una poderosa fuerza, capaz de cambiar las vidas de nuestros antepasados en un abrir y cerrar de ojos. Sin embargo, los tiempos han cambiado y el desarrollo científico y tecnológico ha causado un gran impacto estas últimas décadas. La sociedad ha avanzado vertiginosamente y las nuevas generaciones vienen pisando fuerte, dispuestos a derrumbarlo todo con sus ideales, abriendo paso a una comunidad más libre y desarrollada. Al fin y al cabo, basta un grano de arena para mover montañas,*

## Zumarragako trikitixa

# 10 ALAIN ETA LAGUNAK kuadrillaren karroza

### TIK-TAK TIK-TAK

Arratsaldeko zortziak dira eta Iparragirre plaza toperaino dago. Ez da inor falta. Ume, gazte eta helduok elkarrekin momentu hunkigarri zein berezia bizitzeko prest gaude. Urtero bezala pregoia entzun eta PUUUM! Txupinazoak hasiera eman die Santa Anastasia jaiei. Kaleak jendez betetzen hasi dira eta zurrara eta umore ona somatzen da non-nahi. Poliki- poliki herri-tarrak etxera joaten hasi dira eta datozen egunetako egitaraua buruan dutela lokartzen dira. Txistulari eta dultzaineroen musikak alaitzen ditu kale eta plazak goiz goizetik, gure sustraiak burua dakarzkigutuen herri kirolen erakustaldiaz gozatzea ez da aukera makala, euskal dantza jaialdia dago herriko plazan, karrozen desfile ikusgarria igandean... hots, orotariko herritarentzat parte hartzeko aukera ezin zabalagoa da, herriko edozein ospakizunetan lez.

Tik, tak, tik, tak... larunbat goiza iritsi da, baina non da gazteria? Zer pasa da? Egitaraua bete-beteta dago eta batzuk ohetik ezin jaiki. Nola da posible? Akaso arratsaldeko poteoa al da gazteria elkartzeko modu bakarra?

---

Son las 8 de la tarde. La plaza de Iparragirre, a tope. No falta nadie. Niños/as, jóvenes y mayores nos disponemos a vivir un momento emocionante y muy especial. Como todos los años escuchamos el pregón y PUUUM!. El chupinazo da comienzo a las fiestas de Santa Anastasia. Las calles se llenan de gente y la emoción y el buen humor se notan en todas partes. Poco a poco la gente se va a casa, y se duerme con el programa de los próximos días en mente. La música de txistularis y dultzaineros alegra calles y plazas desde la mañana; disfrutar de la exhibición de deporte rural que nos trae al recuerdo nuestras raíces es una gran oportunidad; en la plaza festival de euskal dantza, el domingo gran desfile de carrozas..., gran ocasión para que participe todo el mundo, como en cualquier acto el pueblo.

Tic tac, tic tac... llega la mañana del sábado, pero ¿dónde está la juventud? ¿Qué ha pasado? El programa está repleto y algunos sin poder levantarse de la cama. ¿Cómo es posible? Quizás, ¿será el poteo de la tarde la única forma de reunir a la juventud?

### Irrintzi Dantza Taldea



Urretxuko udala

[www.urretxu.eus](http://www.urretxu.eus)

